

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

## **ITZULPENA <sup>1</sup>**

---

Araua: **1102/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko urriaren 22koa, merkurio metalikoa eta merkurioa duten konposatu eta nahaste batzuk esportatzea debekatzeari eta merkurio metalikoa modu seguruan biltzeari buruzkoa**

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*REGLAMENTO (CE) No 1102/2008 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 22 de octubre de 2008, relativo a la prohibición de la exportación de mercurio metálico y ciertos compuestos y mezclas de mercurio y al almacenamiento seguro de mercurio metálico*» (Diario Oficial de la Unión Europea, L 304/75, 2008/11/14).

*1102/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 304, 2008/11/14koa).*

**1102/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA**

**2008ko urriaren 22koa**

**Merkurio metalikoa eta merkurioa duten konposatu eta nahaste batzuk esportatzea debekatzeari eta merkurio metalikoa modu seguruan biltzeari buruzkoa  
(Testu egokia EEEri dagokionez)**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuak, eta, batez ere, 175. artikuluko 1. paragrafoa, eta, erregelamendu honetako 1. artikuluekin lotuta 133. artikulua, aztertu dituzte.

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute <sup>(1)</sup>,

Eta, Eskualdeetako Komiteari aurrez kontsulta egin ondoren,

Tratatuaren 251. artikuluan <sup>(2)</sup> ezarritako prozedurari jarraitu zaio.

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Aitortuta dago merkurio-isurketak mehatxu direla mundu osorako, eta horren ondorioz, ezinbestekoa da zenbait neurri hartzea, tokian-tokian, eskualdeetan, estatuetan eta munduan.

(2) Batzordeak Kontseiluari eta Europako Parlamentuari helarazitako «Merkurioari buruzko erkidegoaren estrategia» izenburuko Komunikazioari, 2005eko ekainaren 24ko Kontseiluaren Ondorioei eta estrategia horri buruzko 2006ko martxoaren 14ko Europako Parlamentuko Ebazpenari <sup>(3)</sup> jarraiki, beharrezkoa da gizakiak eta ingurumena merkurioaren eraginpean izateko arriskua gutxitzea.

(3) Erkidegoak hartutako neurriak merkurioaren eraginpean izateko arriskua gutxitzea helburu duten mundu-esparruko ahalegin gisa hartu behar dira, batez ere Ingurumenerako Nazio Batuen Programako Merkurioari buruzko programaren baitan.

(4) Erkidegoko merkurio-meategiak ixteak ingurumen-arazoak eta arazo sozialak sortzen ditu. Kaltetutako guneek tokiko, ingurumenerako, enplegurako eta jarduera ekonomikorako konponbide bideragarriak aurki ditzaten, neurriak eta egitasmoak laguntzen jarraitu behar dugu, eskura dauden finantzaketa-mekanismoak erabiliz.

(5) Munduan merkurio-eskaintza modu esanguratsuan jaisteko, Erkidegoak substantzia hauen esportazioa debekatu behar du: merkurio metalikoa, zinabrio minerala, merkurio (I) kloruroa, merkurio (II) oxidoa, eta merkurio metalikoa beste substantzia batzuekin nahasiz lortutako nahasteak, amalgama barne, pisuz pisu gutxienez %95eko kontzentrazioa badute.

(6) Esportazioa debekatzeak Erkidegoan merkurio-soberakinak sortzea ekarriko du, eta, horrenbestez, eragotzi egin behar da soberakin horiek merkatura itzultzea. Hortaz, merkurio hori Erkidegoan modu seguruan bilduko dela bermatu behar da.

(7) Hondakin gisa hartzen den merkurio metalikoa modu seguruan biltzeko aukerak aztertu ahal izateko, salbuespena ezarri behar zaio hondakinak botatzeari buruzko Kontseiluaren 1999ko apirilaren 26ko 1999/31/EE Zuzentarauko <sup>(4)</sup> 5. artikuluko 3. paragrafoko a) idatz-zatian ezarritakoari, zabortegei batzuetan hondakinak botatzeari dagokionez. Halaber, adieraziko da ezingo zaizkiola aplikatu Zabortegetan hondakinak onartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituen 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiaren <sup>(1)</sup> (1999/31/EE Zuzentarauaren II Eranskinaren eta 16. artikuluen arabera zabortegetan

---

(1) C 168 EO, 2007.07.20koa, 44. or.

(2) Europako Parlamentuaren irizpena, 2007ko ekainaren 20koa (C 146 E EO, 2008.06.12koa, 209. or.), Kontseiluaren Jarrera Bateratua, 2007ko abenduaren 20koa (C 52 E EO, 2008.02.26koa, 1. or.) eta Europako Parlamentuaren Jarrera, 2008ko maiatzaren 21ekoa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea). Kontseiluaren Erabakia, 2008ko irailaren 25ekoa.

(3) C 291 E EO, 2006.11.30ekoa, 128. or.

(4) L 182 EO, 1999.07.16koa, 1. or.

(1) L 11 EO, 2003.01.16koa, 27. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

hondakinak onartzeko irizpide eta prozedurak zehazten ditu) Eranskinaren 2.4 atalean ezarritako irizpideak merkurio metalikoari, urtebete baino luzaragoan horretarako prestatutako eta ekipatutako instalazioetan bildutakoa bada.

(8) Merkurio metalikoa hondakin gisa hartzen duten biltzeko instalazio guztien hondakinen isurketei buruz, 1999/31/EE Zuzentarauko beste xedapenak aplikatu behar dira. Horren barnean sartzen da zuzentaru horren 8. artikuluko a) idatz-zatiaren iv) tartekian ezarritako betekizuna; hau da, baimen bat eskatzen duen eskatzaileak fidantza edo horren pareko berme batez bermatuko duela baimenaren arabera dagozkion obligazioak beteko dituela (itxi ondorengo mantentze-lanei buruzko xedapenak barne), baita itxiera-prozeduren jarraipena ere. Halaber, biltegi horiei Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/35/EE Zuzentaru aplikatuko zaie, ingurumen-kalteen prebentzio eta konponketekin lotutako ingurumen-erantzukizunari buruzkoa <sup>(2)</sup>.

(9) Merkurio metalikoa horretarako egindako eta egokitutako instalazioetan denbora batez eta urte betez baino gehiago biltzeko, Kontseiluaren 1996ko abenduaren 9ko 96/82/EE Zuzentaru aplikatu behar da, tartean substantzia arriskutsuak dauden istripu larriei atxikitako arriskuen kontrolari buruzkoa <sup>(3)</sup>.

(10) Erregelamendu honek ez dio kalterik egiten hondakinen lekualdatzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Araudian (EE) xedatutakoari <sup>(4)</sup>. Hala ere, Erkidegoan merkurio metalikoa modu egokian ezabatu ahal izateko, bidali eta jasotzen duten agintari eskudunei eskatzen zaie eragozpenik ez jartzeko Erregelamendu honen 11. artikuluko 1. paragrafoko a) idatz-zatiaren arabera hondakin gisa hartzen den merkurio metalikoa garraiatzeari. Adierazi behar da ezen, 11. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera, estatu kide bidaltzaileak ekoiztutako hondakin arriskutsuen kasuan, urteko kopuru orokorra dela-eta ekonomiaren aldetik bideraezina bada estatu kide horretan ezabaketarako instalazio espezializatu berriak sortzea, ez dela aplikatuko 11. artikuluko 1. paragrafoko a) idatz-zatian xedatutakoa.

(11) Ingurumenerako eta gizakien osasunerako bilketa segurua bermatzeko, 2003/22/EE Erabakian adierazten den lurpeko bilketaren segurtasunaren ebaluazioak beste zenbait betekizun zehatz eduki beharko ditu, eta lurpekoa ez den bilketari ere aplikatu behar zaio. Ezin da azken ezabaketako jarduerarik onartu, onarpen bereziko betekizunak eta irizpideak izan arte. Merkurio metalikoa gatz-hobietan edo leku harritsuetan (sakonak, lurpekoak eta gogorrak, merkurio metalikoak ezabatzeko egokitutakoak) biltzeko, baldintza hauek bete behar dira bereziki: lurpeko urak merkurioaren aurka babesteko printzipioak, merkurioaren bapore-isurketak saihestea, eta inguruko gas eta likidoekiko iragazgaitasuna. Merkurioa epe luzez bertan gordeko bada, meategiak itxuragabetzeko prozesuaren bukaeran hondakina kapsula gogorretan gorde beharko da. Irizpide horiek 1999/31/EE Zuzentaruaren eranskinean jaso beharko dira, Erregelamendu honen araberrako aldaketak egin ondoren.

(12) Lurrazalean biltzeko baldintzek printzipio zehatz hauek bete beharko dituzte: biltegitzearen itzulgarritasuna, merkurioa ur meteorikoetatik babestea, lurrazaleko iragazgaitasuna eta merkurio-lurrunen isurketa saihestea. Irizpide horiek 1999/31/EE Zuzentaruaren eranskinean jaso beharko dira, Erregelamendu honen araberrako aldaketak egin ondoren. Merkurio metalikoa lurrazalean gordetzea behin-behineko irtenbidea izango da soilik.

(13) Industria kloroalkalinoak merkurio-pilak bere plantetatik erretiratzeari buruzko beharrezko datu guztiak bidali beharko dizkie Batzordeari eta interesdun diren estatu kideetako agintari eskudunei, Erregelamendu honen aplikazioa errazteko. Merkurioa gas naturala araztu ondoren lortzen duten industria-sektoreek, edo burdinazkoa ez den meatzaritzako azpiproduktu gisa lortzen dutenek edo galdaketetatik lortzen dutenek ere beharrezko datu guztiak helarazi beharko dizkiete Batzordeari eta interesdun diren estatu kideetako agintari eskudunei. Batzordeak jendearen esku jarri behar du informazio hori.

(14) Estatu kideek bilketa-instalazioei ematen dizkieten baimenei buruzko informazioa eman beharko dute, baita Erregelamendu honek merkatuan duen aplikazioari eta eraginari buruz ere, une egokian ebaluatu ahal izateko. Inportatzaileek, esportatzaileek eta operadoreek honako substantzia hauen mugimenduari eta erabilpenari buruzko informazioa eman beharko dute: merkurio metalikoa, zinabrio minerala, merkurio (I) kloruroa, merkurio (II) oxidoa, eta merkurio metalikoa beste substantzia batzuekin nahasiz lortutako nahasteak, amalgama barne, pisuz pisu gutxienez % 95eko kontzentrazioa badute.

(15) Estatu kideek zehaztu egin beharko dute zer zigor aplikatuko zaizkien Erregelamendu honen xedapenak urratzen dituzten pertsona fisikoei eta juridikoei. Zigor horiek eraginkorrak, neurrikoak eta disuasiozkoak izan beharko dute.

(16) Interesa duten alderdiekin informazioa trukatzeko elkartu beharra dago, merkurioaren, merkurioa duten konposatuen eta merkurioa duten produktuen esportazio, inportazio eta bilketarekin lotutako neurri osagarririk behar den ebaluatzeo, baina Tratatuan lehiari buruzko xedatutakoaren aurka joan gabe, eta, bereziki 81. artikuluan xedatutakoaren aurka.

(17) Batzordeak eta estatu kideek garapen bidean dauden herrialdeei laguntza tekniko ematea bultzatu behar dute, baita transizioan dauden ekonomiak dituzten herrialdeei ere. Laguntza, batez ere, merkuriorik gabeko teknologia alternatiboak

---

(2) L 143 EO, 2004.04.30ekoa, 56. or.

(3) L 10 EO, 1997.01.14koa, 13. or.

(4) L 190 EO, 2006.07.12koa, 1. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

erabiltzekoa da, merkurioa eta merkurioa duten konposatuen erabilera eta isurketa gutxitzeko, eta azkenik merkurioa erabiltzeari uzteko.

(18) Gaur egun merkurioa modu seguruan ezabatzeko ikerketak egiten ari dira, bai eta merkurioa egonkortzeko edo gelditu edukiarazteko zenbait teknikari buruzkoak ere. Batzordeak, lehenetsuz, aldizka aztertu behar ditu ikerketa horiek eta horri buruzko txosten bat aurkeztuko du lehenbailehen. Informazio hori garrantzitsua da Erregelamendu hau berrikusteko oinarri sendoa sortzeko, Erregelamenduaren beraren helburua lortzeko.

(19) Batzordeak informazio hori kontuan hartu behar du Erregelamendu hau aldatu behar ote den zehazteko ebaluazio-txostena aurkezten duenean.

(20) Batzordeak, horrez gain, merkurioaren eskariari eta eskaintzari buruzko nazioarteko egoeraren berri izan beharko du, batez ere alde anitzeko negoziazioez, eta horri buruz informatu beharko du planteamendu orokorraren koherentzia ebaluatu ahal izateko.

(21) Erregelamendu hau betetzeko beharrezko neurriak, merkurio metalikoa denbora batez instalazio jakin batzuetan biltzeari buruzkoak, 1999/31/EE Zuzentarauaren arabera hartu beharko dira, zuzentarau horrek lotura zuzena baitu Erregelamendu honekin.

(22) Erregelamendu honen helburua merkurioaren eraginpean egotearen arriskua gutxitzea da, esportazioa debekatuz eta bilketa derrigortuz, baina hori ezin dute estatu kideek bakarrik behar bezala lortu. Horregatik, Erkidegoren eremuan funtzionatuz gero hobe lor daitekeenez, merkantzien garraioan eta barne-merkatuan duen eragina dela medio, eta merkurioaren kutsadura mugaz gaidikoa dela kontuan hartuta, Erkidegoak ere neurriak har ditzake Tratatuaren 5. artikuluan azaltzen den subsidiariotasun-printzipioaren arabera. Esandako artikulua horretan adierazitako proportzionaltasun-printzipioaren arabera, Erregelamendu honek ez ditu helburu horiek lortzeko beharrezko neurriak besterik hartzen.

HORRENBESTEZ, ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

### *1. artikulua*

1. 2011ko martxoaren 15etik aurrera, debekatuta egongo da Erkidegoak hurrengo material hauek esportatzea: merkurio metalikoa (Hg, CAS RN 7439-97-6), zinabrio minerala, merkurio (I) kloruroa (Hg<sub>2</sub>Cl<sub>2</sub>, CAS RN 10112-91-1), merkurio (II) oxidoa (HgO, CAS RN 21908-53-2) eta merkurio metalikoa beste substantzia batzuekin nahasiz lortutako nahasteak, amalgama barne, pisuz pisu gutxienez % 95eko kontzentrazioa badute.

2. 1. paragrafoan aipatutako konposatuen esportazioa ez da debekatuko, esportazioak helburu sendagarriak edo analitikoak edo ikerkuntza eta garapenekoak dituztenak.

3. 2011ko martxoaren 15etik aurrera, merkurio metalikoa esportatzeko merkurioa beste substantzia batzuekin nahastea debekatuta egongo da.

### *2. artikulua*

2011ko martxoaren 15etik aurrera, hurrengo hauek hondakin gisa hartu eta ezabatu egingo dira, gizakien osasuna eta ingurumena arriskuan jarri gabe, 2006ko apirilaren 5eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren hondakinei buruzko 2006/12/EE Zuzentarauaren arabera (1<sup>1</sup>):

a) sektore kloroalkalinoak erabiltzen ez duen merkurio metalikoa;

b) gas naturalaren garbiketa-azpiproduktu gisa lortutako merkurio metalikoa;

c) meategietako operazioetatik eta burdinazkoak ez diren metalen galdaketatik azpiproduktu gisa eratorritako merkurio metalikoa, eta

d) 2011ko martxoaren 15etik aurrera Erkidegoan zinabrio mineraletik lortutako merkurio metalikoa.

### *3. artikulua*

---

(1) L 114 EO, 2006.04.27koa, 9. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

1. 1999/31/EE Zuzentarauko 5. artikuluko 3. paragrafoko a) idatz-zatian xedatutakoa kontuan hartuta ere, konfinamendu-baldintza egokiak badaude, hondakin gisa hartzen den merkurio metalikoa:

a) denbora batez, urte bete baino gehiagoz bildu ahalko da, edo modu iraunkorrean bildu ahalko da (D 15 edo D 12 ezabaketa-operazioak, hurrenez hurren, 2006/12/EE Zuzentarauko II. Eranskinean zehaztutakoak), merkurio metalikoa ezabatzeko egokitutako gatz-hobietan, edo leku harritsu sakon eta gogorretan, gatz-hobien segurtasun- eta konfinamendu-maila parekoa dutenean, edo

b) denbora batez, urtebete baino gehiagoz bildu ahalko da merkurio metalikoa biltzeko egokitutako eta horretara zuzendutako lurrazaleko instalazioetan (D 15 ezabaketa-operazioa, 2006/12/EE Zuzentarauko II Eranskinean zehaztutakoa). Horrela bada, 2003/33/EE Erabakiaren eranskinaren 2.4 atalean zehaztutako irizpidea ez da aplikatuko.

a) eta b) idatz-zatiei 1999/31/EE Zuzentarauko eta 2003/33/EE Erabakiko gainerako xedapenak ere aplikatuko zaizkie.

2. Artikulu honen 1. paragrafoaren b) idatz-zatiak aipatzen dituen biltegiratzei 96/82/EE Zuzentaruak aplikatuko zaie.

### *4. artikulua*

1. Erregelamendu honen 3. artikulua aipatzen duen merkurio metalikoaren ezabaketa burutzeko, 2003/33/EE Erabakiaren arabera bete behar den segurtasun-ebaluazioak bermatu behar du merkurio metalikoak eta hori denbora luzez konfinatzeak dituen ezaugarri eta propietateek sor ditzaketen arrisku zehatzak babesten direla.

2. 1999/31/EE Zuzentarauko 8 eta 9. artikuluek aipatzen dituzten baimenak, erregelamendu honen 3. artikuluko 1. paragrafoko a) eta b) idatz-zatiek adierazten dituzten instalazioei buruzkoak, baporeak atzemateko beharrezko ekipoen ontzi eta instalazioak aldian behin ikuskatzeko betekizunak jasoko ditu, edozein ihes hautemateko.

3. 3. artikuluko 1. paragrafoko a) eta b) idatz-zatiek aipatzen dituzten instalazioentzako baldintzak, bai eta merkurio metalikoa onartzeko irizpideak ere, 1999/31/EE Zuzentarauko I, II eta III Eranskinak aldatzen dituztenak, zuzentaru horretako 16. artikuluan azaldutako prozeduraren arabera hartu ahalko dira. Batzordeak lehenbailehen emango du dagokion erantzuna, beranduenez 2010eko urtarrilaren 1ean, kontuan hartuta informazio-trukearen emaitzak, 8. artikuluko 1. paragrafoaren arabera, eta ezabaketa-metodo segururako aukeren gaineko ikerketa-txostena, 8. artikuluko 2. paragrafoaren arabera.

Azken ezabaketako operazio guztiak (2006/12/EE Zuzentarauko II A Eranskinean zehaztutako D 12 ezabaketa-operazioa), merkurio metalikoari buruzkoak, 1999/31/EE Zuzentarauko I, II eta III. Eranskinetako aldaketak egin ondoren onartuko dira, ez lehenago.

### *5. artikulua*

1. Estatu kide guztiak merkurio metalikoa denbora batez edo epe luzez biltzeko instalazioei emandako baimen guztien kopia bana aurkeztu beharko dute Batzordean (D 15 edo D 12 ezabaketa-operazioak, hurrenez hurren, 2006/12/EE Zuzentarauko II A Eranskinean zehaztutakoak), Erregelamendu honen 4. artikuluko 1. paragrafoaren arabera dagokion segurtasunaren ebaluazioarekin batera.

2. Beranduen 2012ko uztailaren 1ean, estatu kideek Erregelamendu honen aplikazioari eta merkatuan dituen eraginei buruz Batzordea informatu beharko dute. Batzordeak hala eskatuz gero, estatu kideek informazio hori aipatutako data baino lehenago aurkeztu beharko dute.

3. Beranduenez ere 2012ko uztailaren 1ean, 2. artikulua aipatzen dituen jardueren operadoreek, inportatzaileek, eta esportatzaileek hurrengo datu hauek bidali beharko dizkiete Batzordeari eta eskumena duten agintariei, bidezkoa bada:

a) Erkidegoan sartuko den merkurio metalikoaren bolumena, prezioa, jatorrizko eta helmugazko herrialdeak eta aurreikusitako erabilera.

b) Erkidegoan mugaz gaindiko merkataritzarako erabiliko den hondakin gisa hartzen den merkurio metalikoaren bolumena eta jatorrizko eta helmugazko herrialdeak.

### *6. artikulua*

*1102/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 304, 2008/11/14koa).*

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

1. Sektore kloroalkalinoko enpresek, zerikusia dutenek, urte zehatz baten erretiratutako merkurioari buruzko datu hauek emango dizkiete Batzordeari eta interesdun diren estatu kideetako agintari eskudunei:

- a) pila kloroalkalinetan oraindik erabiltzen den merkurio-kantitate guztiaren kalkulua, ahalik eta zehatzen;
- b) instalazioan bildutako merkurio guztiaren kantitatea;
- c) denbora baterako edo epe luzerako instalazioetara bidalitako merkurio-hondakinen kantitatea, eta instalazio horien kokalekua eta harremanetarako helbidea.

2. Gas naturalaren arazketan edo burdinazkoak ez diren metalen fusio- edo erauzketa-operazioetatik merkurioa lortzen duten enpresa inplikatuak, urte zehatz baten jasotako merkurioari buruzko datu hauek emango dizkiote Batzordeari eta interesdun diren estatu kideetako agintari eskudunei:

- a) berreskuratutako merkurio kantitatea;
- b) denbora baterako edo epe luzerako instalazioetara bidalitako merkurio-hondakinen kantitatea, eta instalazio horien kokalekua eta harremanetarako helbidea.

3. Inplikaturako enpresek 2009ko abenduaren 4ean bidaliko dituzte lehen aldiz 1. eta 2. paragrafoetan aipaturako datuak, kasuaren arabera, eta horren ondoren, urtero, beranduen maiatzaren 31an.

4. Batzordeak jendearen eskura jarriko du 3. paragrafoak aipatzen duen informazioa, aplikazioari, erakundeei eta Erkidegoko organismoari buruzko Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2006ko irailaren 6ko 1367/2006 (EE) Erregelamenduaren arabera eta Aarhus-ko Hitzarmenean ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeari buruz, ingurumenari buruzko erabakietan jendeak parte hartzeari buruz eta ingurumenari buruzko auzietan justiziarako sarbidea izateari buruz ezarritako xedapenen arabera. <sup>(1)</sup>.

### *7. artikulua*

Estatu kideek Erregelamendu honen xedapenak urratuz gero aplikatu beharreko zehapenen erregimena zehaztu beharko dute, eta, era berean, behar diren neurri guztiak hartu beharko dituzte zehapen horiek bete daitezten. Zigorak eraginkorrak, proportzionatuak eta eragozleak izango dira. Estatu kideek xedapen horien berri emango diote Batzordeari, beranduenez 2009ko abenduaren 4ean, eta horren ondorengo jakinarazpen guztiak atzeratu gabe helaraziko dizkiote.

### *8. artikulua*

1. Batzordeak estatu kideen eta interesaturako partearen arteko informazio-trukea antolatuko du, beranduen 2010eko urtarrilaren 1ean. Informazio-truke horretan batez ere hurrengo beharizanak landuko dira:

- a) Esportazioaren debekua zabaltzea, besteak beste, hurrengo konposatu hauen esportazioa ere debekatuz: merkurioa duten beste konposatu batzuk, merkurio gutxiago duten nahasteak, eta merkurioa duten produktuak, termometroak, barometroak eta esfigmomanometroak, hain zuzen ere;
- b) merkurio metalikoaren, merkurio-konposatuen eta merkurioa duten produktuen inportazioa debekatzea;
- c) biltzeko obligazioa beste iturri batzuetatik eratorritako merkurio metalikoari ere aplikatzea;
- d) eta merkurio metalikoa denbora batez biltzeko epeak zehaztea.

Informazio-truke horretan metodo seguruak erabiliz ezabatzeko aukerei buruz ere hitz egingo da.

Batzordeak informazio-truke gehiago antolatuko ditu gaiari buruzko informazio berria jasotzen duenean.

2. Batzordeak metodo seguruak erabiliz merkurioa ezabatzeko aukerei buruz abian diren ikerketak jarraituko ditu, merkurio metalikoa solidifikatzeari buruzkoak barne. Batzordeak Europako Parlamentuan eta Kontseiluan txosten bat aurkeztuko du, beranduen 2010eko urtarrilaren 1ean. Txosten hori oinarritzat hartuta, Batzordeak, bidezkoa denean, Erregelamendu hau berraztertze proposamena aurkeztuko du, beranduenez 2013ko martxoaren 15ean.

3. Batzordeak Erregelamendu honek Erkidegoan dituen aplikazioa eta merkatuko eraginak ebaluatuko ditu, 1. eta 2. paragrafoetan eta 5. eta 6. artikuluetan azaldutako informazioa kontuan hartuta.

---

(1) L 264 EO, 2006.09.25ekoa, 13. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

4. Batzordeak Europako Parlamentuan eta Kontseiluan aurkeztuko ditu txosten bat eta, hala behar izanez gero, baita Erregelamendu hau berraztertzeko proposamena ere; lehenbailehen egingo du, baina edozein kasutan, 2013ko martxoaren 15a baino lehen. Txosten horretan 1. paragrafoak aipatzen duen informazio-trukearen eta 3. paragrafoan aipatzen den ebaluazioaren emaitza islatu eta ebaluatuko da, baita 2. paragrafoak aipatzen duen txostena ere.

5. Beranduen 2010eko uztailaren 1ean, Batzordeak Europako Parlamentua eta Kontseilua informatuko ditu merkurioari buruzko alde anitzeko jarduera eta negoziazioei buruz, batez ere Erregelamendu honetan zehaztutako neurrien aplikazio-esparrua eta egutegia, koherentziaren aldetik, nazioarteko egoeraren eboluzioarekin bat ote datozen ebaluatuz.

### *9. artikulua*

2011ko martxoaren 15a arte estatu kideek murrizketen neurri nazionaleri eusteko aukera izango dute hurrengo material hauen kasuan: merkurio metalikoa, zinabrio minerala, merkurio (I) kloruroa, merkurio (II) oxidoa eta merkurio metalikoa beste substantzia batzuekin nahasiz lortutako nahasteak, amalgama barne, pisuz pisu gutxienez %95eko kontzentrazioa badute, eta 2008ko urriaren 22a baino lehen Erkidegoaren legediaren arabera onartu badira.

### *10. artikulua*

Erregelamendu hau *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratzen denetik 20 eguneko epean sartuko da indarrean.

Erregelamendu honen elementu guztiak dira bete beharrekoak eta estatu kide bakoitzean zuzenean aplikatzekoak.

Estrasburgon emana, 2008ko urriaren 22an.

*Europako Parlamentuaren izenean, H.-G. PÖTTERING Lehendakaria*

*Kontseiluaren izenean, J.-P. JOUYET Lehendakaria*